

7.-Mundua beste ikuskera batzuetatik eraikitzeko, geldiarazoten gaituan etsipena gainditzeko dei larria dan konbite hori geure egin daigun. Jesusen bidea, maitasun-bidea, hartu behar dogu barriro be. *“Preminazko deialdia egiten dot munduaren etorkizuna eraikitzen dihardugun erari buruzko alkarrizketa barriari ekin deiogun... Zoritxarrez, ingurumenaren krisiari konponbide zehatzak aurkitzeko ahaleginak zapuztu egiten dira, ez boteretsuen gitxiespenagatik bakarrik, baizik eta baita besteen interes faltagatik be. Hainbat dira konponbideak oztopatzen dabezan jarrerak, baita sinistedunen artean be, adibidez: arazoaren ukapena, axolagabekeria, etsipen eroso edo konfiantza itsua konponbide teknikoetan”*.
(Laudato Si’, 14)



OTOITZA

Ene Jaungoikoa, badakizu gizon-emakumeon bizitza hamaika eraginaren, presino eta tentazinoren eta aurkakotasunen pean dagoana eta, aldi berean, hainbeste suspergarri, iturri eta eredu onen pean; onaren erakargarri eta eragina tentazinoaren eta gatzaren indarra baino askoz sendagoa izan daitela eta Jesusen izaera eredugarriak lagundu deigula maitasun eta ontasunaren bidetik bere atzetik joaten.

Jesus zure Seme eta gure Anaiaren bitartez. Amen

(Koinonia zerbitzuak)

GARIZUMA ALDIKO DOMEKETARAKO HOMILIETARAKO OHARRAKELEIZAREN DOKTRINA SOZIALAREN HARITIK

GARIZUMA ALDIKO 1. DOMEKA – 2017ko MARTXOAK 5 JESUS, GIZONA DA

- **Hasiera 2, 7-9. 3, 1-7**

Orduan, Jainko Jaunak lur-hautsez gizona moldatu eban; **sudur-zuloetan bizi-arnasa putz egin eutsan...** hartu eban haren frutuetako bat eta jan egin eban... begiak zalbaldujakezan eta biluzik egozala konturatu ziran.

- **Paulok Erromatarrei 5, 12-19**

(...) Beraz, baten pekatuak gizon-emakume guztiei gaitzespena ekarri eutsen lez, baten leialtasunak gizon-emakume guztiei salbazinoa eta bizia ekartendutsez.



- **Mateo 4, 1-11**

... Espirituak basamortura eroan eban Jesus... Berrogei gau eta berrogei egunez egon zan han, barau eginez, eta azkenean gosetu egin zan. Hurbildu jakon, orduan **tentatzailea** eta esan eutsan... **Hori guztia emongodeutsut, ahuspezturik gurtzen banozu...** “Alde hemendik, Satanas!... Adoratu Jauna, zeure Jaungoikoa, eta bera bakarrik gurtu.

1.- Garizuma aldiari ekin deusagu; bide honek helburu segurura garoaz: Berbizkundera. Eta aldi honetan, eten barik eta ozen entzungo dogu bihotz-barrizkeko, Jaungagazko adiskidetasunean hazteko deia. Hitza maiztasun handiagok entzuteko eta hausnartzeko aldia be bada. Eleizak bere Doktrina Sozialean aurkezten deuskuna be gogoan izango dogu ibilpide honetan.

2.- Ebanjelioak Jesusek Jaungoikoaren Erreinuaren ernamun izateko dauan urduritasunaz hitz egiten deusku. Basamortuan, “tentatua izan zan” bere barru-barruan eta misinoan: Agintea oinarritzat hartu? Jentea bere ospeagaitik geure alde jarri? Jaungoikoaren indarrak baliatu?... Jesusek argi ikusi eban: Jaungoikoagan konfiantza osoa jarriz bakarrik izan gaitekez leialak eta behartsuen benetako zerbitzari bihurtu gaitekez. Tentazinohorreek: agintea, ospea, besteez baliatzea, onura edo ospea kosta ahala kosta lortzea... geure tentazinoak be badira. Jesusen zalantzetan islatzen da geure burua?

3.- Beharbada ez. Baliteke holako zalantzarik ez sortzea eta horretan ez jaustea. Gure munduan, askotan, jarrera horreek maiz agertzen dira jente-artean, normaltasunez onartzen dira. Gure munduan hedatuta dagoan ekoizpen-kontsumo dinamikak harrapatuta gaukaz eta gure bihotza ixten deutse azkenei.



Holanadierazoten dau Frantzisko aita santuak *Evangelii Gaudium* agirian. “Gaurko munduak arrisku handia dau, kontsumorako eskaintza anitz eta ikaragarriaren eraginez, bihotz eroso eta zekenetatik tristura indibidualista, azaleko gozamenen bilatze gaixotia, bakartutako kontzientzia sortzen diralako. Barruko bizitza norbere interesetan oinarritzen eta amaitzen danean, ez dago besteentzako lekurik, behartsuak ezin dira sartu, ezin da ez Jaungoikoaren ahotsa entzun, ez bere maitasunaren pozaz gozatu, ezta on egiteak eragiten dauan atsegina sentitu be. Sinistedunek be badabe arrisku hori, arrisku benetako eta iraunkorra. Asko jausten da horretan eta izaki nahigabetu, kexati eta bizigabe bihurtzen. Hori ez da bizitza duin eta osorako hautua, hori ez da Jaungoikoak guretzat dauan nahia, hori ez da Kristo berbiztuaren bihotzetik sortzen dan *Espirituagan bizi izatea*” (EG, 52).

4.- Beharbada errazagoa da “errua bestearena” dala pentsatzea. Gelditu eta geure makaltasuna, geure tentazinoak, geure “amen-amen egitea” autortu egin behar dogu. Isiltasuna egin, barau egin, otoitz egin. Eta aldi hau aukerakoa da hainbat gauza autortzeko: Jesusen zalantza berak doguzala, Adanek lez, “gaiari iges egiteko” jarrerak doguzala, beti ‘irabazleagana’ hurreratzen garala, geuretzat eta anai-arreben bizitzarako ze ondorio izan leiken konturatu barik. Ez gagoz kanpoan. Pentsamolde hau be azaltzen da gure bizitzan.

Zenbat denpora eskaintzen deusat otoitzari? Zelan ikusten dot neure burua hainbat jarrera eta jokaera bidegabe normaltzat jotzen dauan pentsamolde horretan?

“*Pobretze espirituala fedearen kristau heziketa eta bizipen nahiko ez dauan makina bat bateaturengan be antzeman daiteke; oinarririk ez horrek guztiz hedatuta dagozan eta oinarririk ez daben ideologia ‘hegolaburren’ biktima erraz bihurtzen ditu, gauzei eta munduari Jaungoikoari atzea emonez begiratzer, agnostizismo makalera bultzatuz. Ebanjelizazino barria martxan jarrea eskatzen deuskue oihuka*” (Eleiza eta behartsuak, 13).

5.- Jesukristok dakarskun askapena autortu beharra dogu, erruz gainezka egiten dauan eta Paulo Erromako kristauei agertzer emoten sailtzen dan Jaungoikoaren Grazia. “Eleiza eta behartsuak” agiriaren haritik: “*Kristauek, otoitzaren, Jaungoikoaren Hitzaren eta sakramentuetan emonkortasunez parte hartzearen bidez suspertuta, Jesukristogaz bat egitearen esperientzia pozgarria bizi dabenean, Eleiza amagana hurreratzen dira gehiago maitatzeko eta hazten laguntzeko nahiagaz, bere eraikuntzan ahalegintzen dira, gizartean konprometitutako fedea bizi dabe eta Kristo behartsuengan aurkitzen eta zerbitzitzen ikasten dabe*”. Askapenerako proposamen ete da Jesukristo niretzat?

6.- Parkamena, grazia, itxaropena. “*Baikortasunak huts egiten dau, itxaropenak ez! Behar-beharrezkoa dogu, ilun agertzen dan sasoi honetan, inguratzen gaituan gatx eta indarkeriaren aurrean, gure anai-arreben oinazearen aurrean, makina bat bider galduta sentitzen garan sasoi. Itxaropena behar dogu! Galduta eta, neurri batean, adore barik sentitzen gara, ahalmen barik sentitzen garalako eta iluntasun hau sekula ez dala amaituko iruditzen jakulako. Baina itxaropenean iraun behar dogu, Jaungoikoa bidelagun dogulako bere maitasunagaz. «Nik itxaroten dot, Jaungoikoa bidelagun dodalako»: danok esan daikegu hau*” (Frantzisko Aita Santua, eguazteneko katekesia, 2016.eko abenduaren 7a). Itxaropenez betetako persona ete gara?

